

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEN KONTUEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2017

FINANTZA EGOERA OSASUNTSUA EUSKAL TOKI-ERAKUNDEETAN

Zorpetzeak behera egin du

Bikoiztu egin da batere akatsik aurkitu ez zaien entitate kopurua

Joan den irailaren 26an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen EAEko Toki Entitateen 2017ko ekitaldiko Kontuei buruzko txostena.

Txostenak 2017an EAEn zeuden 251 udalen eta udalaz gaindiko 63 erakundeen (partzuergo, mankomunitate, kuadrilla eta partzoneriak) kontu orokorrak aztertzen ditu. Aztertutako udal eta udalaz gaindiko erakundeek antolamenduan 70 erakunde autonomo, 104 udal sozietate publiko eta 4 enpresa erakunde publiko besarkatzen dituzte. Eta, gainera, 25 fundaziotan esku hartzen dute.

URTEKO KONTUEN EDUKIA

HKEEk EAEko igorritako kontu orokorren eduki formala balio-neurtu du eta informatzeko betebeharrari dagokionez, legeria zein mailatan bete den egiaztatu du. Gainera, aurrekontuko likidazioek, balantzeek eta galera-irabazien kontuek ezargarria den araudiak agintzen duen informazio guztia besarkatzen dutela eta agiri horiek elkarrekiko koherente direla egiaztatu du. Ez da akatsik azaleratu 39 udaletan eta udalaz gaindiko 12 erakundetan.

Kontu Orokorraren eta Likidazioaren eduki formalari dagokionez, akatsik ohikoenak dira ez barne hartzea bankuko oharpen edo ziurtagiriak eta kontziliazioak (36 udal eta udalaz gaindiko 12 entitatetan) edo diruzaintzako kontua (31 udal eta udalaz gaindiko 13 entitate).

Ondare kontabilitateari dagokionez, akatsik ohikoena da balantzean edo ekonomia- eta ondare-emaizen kontuan ibilgetuko amortizazioak ez txertatzea (58 udal eta udalaz gaindiko 12 entitatetan).

Akats hauek batik bat 5.000 biztanletik beherako udaletan gertatzen dira.

ONESPEN EPEAK

HKEEK atzerapenak izan direla ikusi du urteko aurrekontua onestean (133 udaletan eta udalaz gaindiko 24 erakundetan); aurrekontua kitatzean (27 udaletan eta udalaz gaindiko 6 erakundetan) eta kontu orokorra onartzean (70 udaletan eta udalaz gaindiko 11 erakundetan).

68 udalek eta udalaz gaindiko 3 erakundek aurreko ekitaldiko aurrekontuak luzatu zituzten. Ez dago jaso Kontu Orokorra onartu denik 9 udaletan eta udalaz gaindiko 8 erakundetan.

TOKIKO SEKTOREAREN FINANTZA EGOERA

2015eko abenduaren 31n, udal 1ek eta udalaz gaindiko 2 erakundek diruzaintza geldikin negatiboa zuten (defizita) eta 2017ko abenduaren 31n finantzatu gabe daukate.

Euskal **udalen autonomia fiskalak** (sarrera guztien gainean zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarrerak) 2017an % 36,96 egin du. **Biztanleko gastuak** batez beste 1.308 euro egin du.

Biztanleko batez besteko zorpetzeak % 4,3 egin du behera. Udalen zorpetzea biztanleko 457 euro da (473 euro 2016an) eta udalaz gaindiko udalena, berriz, biztanleko 118 euro (2016an 128 euro).

KONTUAK EZ AITORTZEA

Epaitegi honi kontuei buruzko dokumentazioa igortzeko duten obligazioa maila handian betetzen dela azpimarratu behar da. 10 udalek eta udalaz gaindiko 8 erakundek soilik urratu dute obligazio hau. Epez kanpo jaso dira 8 udalen eta udalaz gaindiko erakunde 1en kontu orokorrak eta honenbestez, ezin jaso izan ditugu Txosten honen ondorioetan.

Gainera, Kuartangoko Uren Partzuergoaren kontuek ez dituzte egitura bateratuak indarreko legediak agintzen duenarekiko. Ekialdeko Lautadako Urkidetzak ez dio jarduerari ekin.